



1.928.^{GO} MADALEN JAIETAKO BERRIAK

XABIER (1.993-5-25)

Etxean neuzkan argazki zar batzuen artean, azaldu zaizkit festagi-rokoak diranak eta berauen arteko bik, emango didate "Oarso" aldizkarirako urteroko ondar aletxo bezela izango dan nere lana.

Aspaldikoak zirela ba nekian bañan ziurtasunik ez noizkoak izango ziran naiz eta argazkian dagozteren partaideen artean nere bi senide izan eta naiz gutxi gora bera jakin, bañan ez data zeatzik.

Udal etxeko agiritegira jo det eta bertan zegozten aldizkarien artean zer edo zer arkitzeko asmoetan eta, ain zuzen, ber nituen xeetasunak 1.928.go "Renteria" aldizkarian azaltzen dira urte artako jaien egitarauen artean nik aurkitutako argazkietan dagozten partaideak zein ekintzean zati izan ziren.

Berauen izenagiriak ez nekizkien ziurtasunez eta urte artako erriko biztanle lerrotan, beren izen abizenak arkitu nituen era orretan argazkiari ziurtasun geiago eman al izateko, jakin izanik jai gurdi arretan nortzuk ziren euskal eztaia osatzen zutenak.

Alaz guztiz era izan leike akatzen bat izatea eta oraindik bi zi direnak ikustean ala balitz barka nere errua.

Gaiñera aldizkarian azaltzen dan festa egitarauen bidez urte artako jaiak nolakoak izan ziren eta oraingoarekin pareka-

tzeko argitaratuko ditut. Or djoaz laburtuta bada ere urteetan aurrera goazenak oroitu al izateko.

Urte artako jaien asiera ez zan izan orain asten bezela: arratsaldeko zazpitan izaten dan festa giroko ez dan zarata eta istillua, festa asiera baiño geiago burruka baten asiera dirudiena. Bañan utzi dezagun neretzat eta erritar askorentzak ain penagarri den festa asiera oni jaramonik egin gabe.

Madalen besperako festa, goizeko bederatzit ta erdietan asi zan erri ikastoletako neska, mutil, irakasle eta irakaskuntza batzarrekoarekin eleiz nagusian elkartu ziran meza entzunaz jaiari era onetan asiera emanaz ondoren sari banaketa udal etxean izanik.

Arratsaldeko zortziretan erriko kaleetan zear biribilketa alaiak naiz ez egitarauan ez azaldu iruditzen zait "Centenario" gurea dan biribilketa tartean izango zala, arratseko bederatzietatik aurrera zumardian musika saioa izanik.

Gure zaindariaren eguna naiko oraingoan antzerakoa izandu zan, goiz eresiak, gure zaindariarekin eleiz bira edo prozezioa eta erestaldia, bañan egun orretan bi gauz aipatzekoak ziran jaien artean.

Bata munduan zear zebillen Angel Etxeberria abeslari ospetsuak meza nagusiaren tarte batean abesti elizkoi bat abestuko zuela eta ain zuzen ekiñaldia egun orretan egin zuana azkenekoa izandu zan zergaitik urrango urtean gaitz txar batek mundu ontatik eraman zuan eta bestea meza nagusi ondoren Vicente Cobreros Uranga erritar margolari trebeak, egindako Alfonso XII. Espaiñiko errege zanaren neurri bereko irudi bar udal etxeko gelan ipiñi zala.

Madalen bigarrenian orduko erreteriarantz benetan oroi-garrria izandu zan, urtero bezela abere sariketa eta baserritarren eguna bezela ospatzen zan arratsaldea sari banaketa, dantzariak, bertsolari eta abar izanik, bañan gure erriak urte aietan urarekin arazo asko izaten zituen eta egun orretan Eldotz, ko ur ekartze berriaren zabalketa izandu zan.

Egun artan orduko ziran jaun aundi, Espaiñiko Ministro batzarreko lendakari zan Miguel Primo de Rivera, Gipuzkoako eta erri aldietako ziran agintariak erriko apaiz biltzarra eta Carlos Ichaso Asu alkatea tartean ziralarik orlako jaietan orduan eta bai orain era jai bazkari batekin amaitzen zan ordukoa Panier Fleurin izanik.

Madalen irugarrena egun berezia izandu zan urte artako jai giroari darionez naiz eta egintza gutxi izan egun tartean. Amabietan erri arteko gaztediarentzat korrikaldia eta arratsaldean pillota jokaldiak orduan goi maillan zegozten pillotarien artean.

Arratseko 9.tan gau jai berezi bar izandu zan Lagun Artea eta Euskalduna elkarteal eratua Udal etxearen laguntzarekin:

Bertan lagun talde disdiratsua, zaldi gaiñeko aintzindaria, danbor talde, ikusteko jai gurdiak (Auen tartean argazkietan dagoena), Udal eta Regimiento Siciliako Musika Banda Elkarteak azken onek bere turuta eta danbor taldearekin, euskel jaskerako taldeak eta azkenik ikusgarriko jai gurdia Erreteriarako neskatxekin osatua, tartean erriko erregiña festaren buru izanik eta ondoren gauerdia arte dantzarako soiñua musika banda eta txistulariak parte arturik.

Santiyo egunak ez zuan jai berezirik izan, Eleiz bira eleizatik Magdalena elizaxora (an beste urte baterako gure zaindaria ixilgunean egoteko) orain egiten oi dan bezela eta arritzeak danez eta orain oitura dan bezela ez zan gauean jaiaren amaiera eguna izan asteazkena izanik jaiaren bukaera igandea 29,ra aldatu zuten au igandea zalarik.

Egun orretan erriko txirindularien arteko frogia izandu zan, Erriko musika bandaren eresaldia, Futbol saioa Real Sociedad eta erriko Euskalduna Elkartearen artean, arratsean eta bederatzit ta erditan asi ta ikusteko gau jai "Veneciana" erako argi aldi, bi musika elkarte, txistulariak, txarangak, soñu joleak festa guzia zumardi aundian izanik, bertan gainera edari eta kafe lekuak jendearen egarri eta edan naiak asetzeko.

Jaien bukaera orain gau jaien asiera izaten dan garaien izaten zan, ez ziran festa berdiñak. Orain nai bada aunditasun geiagokin egin oi dira, bañan nere iritziz oraingoak baino erriko eta sendikorrangoak izaten ziran alaitasun pake eta festa giroa unkigriagoa izanik.

Ona emen urte artan festetako partaide izan ziren argazkiak eman didan "Oarso" aldizkariarentzat idaz lanaren gaia.

Jakin dezagun urte artan oraingo biztanleen laurdenik ere ez giñela Erreteriaran, bañan guztiok sendi baten barruan bezela bizitzen giñela, gaur ainbat zarata eta eskanbillarik gabe, umoretsu anaikor eta langilletasun osoaz.

Saia gaitian Erreteriar aiek utzi zizkiguten erakusketaren jarraitzalle izaten eta orduan bezela pakea ta alaitasuna nagusi izan dedilla gure artean.

Magdalemas 1928
Retreta organizada por las sociedades Lagun Artea y C.D. Euskalduna patrocinado por el Ayuntamiento.

